



2010/03/15eko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2009ko 4. hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspena % 24,5 jaitsi da 2009ko laugarren hiruhilekoan.

Aurreikusten da 1.971 etxebizitza eraikiko direla, joan den urteko hiruhileko berean baino 640 gutxiago, % 24,5 gutxiago, baina hirugarren hiruhilekoan baino 683 gehiago, % 53 gehiago.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2009ko laugarren hiruhilekoan aurreikusi zenez oin berriko 1.971 etxebizitza eraikiko ziren, iazko denboraldi berean baino % 24,5 gutxiago, baina 2009ko hirugarren hiruhilekoan baino % 53 gehiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2009.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



Arabian (1.179 etxebizitza) Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzaren % 59,8 eraikiko dira, ondoren Gipuzkoa dago, lurralde horretan 462 etxebizitza eraikiko baitira, hots, guztizkoaren % 23,4. Bestalde, aurreikusten da Bizkaian oin berriko 330 etxebizitza eraikiko direla, guztizkoaren % 16,7.

Arabako Lautadan Arabian aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren % 98,6 daude, Donostialdean Gipuzkoako % 48,1 eta Bilbo Handian Bizkaiko % 63,6.

Aurreikusten da Gasteizen oin berriko 1.160 etxebizitza eraikiko direla, Euskal Autonomia Erkidego osoaren % 58,9 eta Arabakoaren % 98,4, eta ondoren honako hauek daude: Tolosa 152 etxebizitzarekin, –Erkidegoaren % 7,7–, Astigarraga 120rekin –% 6,1– eta Sondika 101ekin –% 5–. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, soilik 50etan –5etik batean– aurreikusten zen etxebizitza berriak eraikiko zirela.

Bestalde, etxebizitzaren birgaitzea % 23,6 jaitsi da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Aurreko hiruhilekoari dagokionez, beherakada txikiagoa da; izan ere, urteko hirugarren hiruhilekoan 125 birgaitze aurreikusita bazeuden ere, 113 egin dira, hots, % 9,6 gutxiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua % 24,7 jaitsi da 2009ko laugarren hiruhilekoan, betiere kopuru hori 2008ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoera-adierazle gisa erabili ohi da) 488ra igo zen 2009ko laugarren hiruhilekoan.

Hamarretik ia zazpi –% 68,2– birgaitze-lizentziak dira, oin berriko % 29,1 eraikin egiteko dira eta % 2,7 eraisteko lizentziak dira bereziki –guztira 13–.

Bizkaian obra handiko 247 lizentzia daude, Arabako 159 lizentzien eta Gipuzkoako 82 lizentzien gainetik. Azken horren kasuan, oin berriko eraikin egiteko lizentziak lurraldeko lizentzia guztien % 45,1 dira, Arabaren eta Bizkaiaren kasuan, ordea, % 30,8 eta % 22,7 dira, hurrenez hurren.

Eraikuntza gelditzeak Gipuzkoari eragin dio bereziki.

2008ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian % 16,3 lizentzia gutxiago eman dira, Araban % 19,7 eta Gipuzkoan % 47,1.

Bilbo Handian Bizkaiko lizentzien % 66,4 eman dira, ehuneko hori Arabako Lautadaren ehunekotik hurbil dago (betiere Arabarekin alderatuta –% 63,5–), Donostialdean, ordea, Gipuzkoako lizentzia guztien % 51,2 eman dira.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2009ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekik o aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	488	100.0	-11	-2.2	-160	-24.7
	Oin berriko eraikinak	142	29.1	16	12.7	-74	-34.3
	Birgaitzeak	333	68.2	-27	-7.5	-84	-20.1
	Eraispenak	13	2.7	0	0.0	-2	-13.3
Araba	Guztira	159	100.0	-54	-25.4	-39	-19.7
	Oin berriko eraikinak	49	30.8	-4	-7.5	-13	-21.0
	Birgaitzeak	102	64.2	-54	-34.6	-29	-22.1
	Eraispenak	8	5.0	4	100.0	3	60.0
Bizkaia	Guztira	247	100.0	58	30.7	-48	-16.3
	Oin berriko eraikinak	56	22.7	20	55.6	-24	-30.0
	Birgaitzeak	190	76.9	38	25.0	-21	-10.0
	Eraispenak	1	0.4	0	0.0	-3	-75.0
Gipuzkoa	Guztira	82	100.0	-15	-15.5	-73	-47.1
	Oin berriko eraikinak	37	45.1	0	0.0	-37	-50.0
	Birgaitzeak	41	50.0	-11	-21.2	-34	-45.3
	Eraispenak	4	4.9	-4	-50.0	-2	-33.3
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2,084	100.0	671	47.5	-675	-24.5
	Oin berriko eraikinak	1,971	94.6	683	53.0	-640	-24.5
	Birgaitzeak	113	5.4	-12	-9.6	-35	-23.6
Araba	Guztira	1,203	100.0	410	51.7	560	87.1
	Oin berriko eraikinak	1,179	98.0	415	54.3	561	90.8
	Birgaitzeak	24	2.0	-5	-17.2	-1	-4.0
Bizkaia	Guztira	379	100.0	275	264.4	-981	-72.1
	Oin berriko eraikinak	330	87.1	292	768.4	-927	-73.7
	Birgaitzeak	49	12.9	-17	-25.8	-54	-52.4
Gipuzkoa	Guztira	502	100.0	-14	-2.7	-254	-33.6
	Oin berriko eraikinak	462	92.0	-24	-4.9	-274	-37.2
	Birgaitzeak	40	8.0	10	33.3	20	100.0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Informazio gehiago izateko:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena
Tel.: +34-945-01 97 12 Faxe: +34-945-01 64 07
Prensa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>
WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>